## Patziku Perurena

### ISILTASUNEZ ENPOKATU ARTE

Bildurrak herdoitzen du argia
Uxa ezazu zeure bildurra
Eta laztan mundua,
Zeure begiekin erantziaz.

Gezurrak zikintzen du haizea
Bildu zeure gezurrak
Eta garbi haizea,
Zeure mingainez igurtziaz.

Oinazeak itzaltzen du sua
Urtu ezazu zeure oinazea
Eta edan sua
Zeure eskuekin bilduaz

Atseginak isiltzen du harria
Izan zaitez atsegin gose
Eta jan harriak
Isiltasunez enpokatu arte



**ISILTASUNEZ ENPOKATU ARTE**

*Bildurrak herdoitzen du argia. / Uxa ezazu zeure bildurra / Eta laztan mundua / Zeure begiekin erantziaz. / Gezurrak zikintzen du haizea. / Bildu zeure gezurrak / Eta garbi haizea, / Zeure mingainez igurtziaz. / Oinazeak itzaltzen du sua / Urtu ezazu zeure oinazea / Eta edan sua / Zeure eskuekin bilduaz. / Atseginak isiltzen du harria / Izan zaitez atsegin gose / Eta jan harriak / Isiltasunez enpokatu arte. /*